

# ZARR

BIZKAITARRAI  
BIZKAIERAZ  
30n. ZENBAKIA  
EPAILLA  
-1980-



-LEKUONA'TAR MANUEL


-BARANDIARAN'DAR JOSE MIGEL

DEDUZKO IRAKASLE

GASTEIZ'KO IKASTETXE NAGUSIAN

# ZAR

Colón de Larreategui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1



## 70 urte Bizkaiari laguntzen



**CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE BILBAO**  
ONDO ERANTZUTEN DAU

25 PEZET.

# GASTEIZ'KO ABADE - IKASTEGIA

## URREZKO EZTEGUAK

Aurten beteten dira 50 urte Gasteiz'ko Abade-Ikastegia sortu zala eta, ori dala-ta, aldizkari onen beste orrialde baten diñogunez, Barandiaran eta Lekuona'ri omenaldia egin jake eta Deduzko Irakasle izendatu ditue. Ez da besterik egin, zor aundia ordaindu baiño.

Berrogei ta amar urte oneian izan ditu «Seminario» onek egun aundiak eta pozezkoak, baiña ez gitxiago negargarri ta samiñak. Or agertzen da, era batera edo bestera, Euskarriaren zori bardiña izan dauala.

Guda-aurrean ospe aundia lortu eban eta Erriaren alde lan ederra egin eban, baiña orduan be ostopoak ugari izan. Barandiaran eta Lekuona izan ziran eragille, euskal gizabidearen eta euskerearen arloetan.

Guda-ostea, zapalkuntzaren aldia izan zan eta lan aundia egiteko erea ta kemena izan arren, bideak goitik ezarriak izaten ziran, Gotzaiña bera be goitik ezarria zan lez.

\* \* \*

## GOTZAIÑAK

**Guda-ostean lenengo Gotzaiña edo Gotzain-ordea Laurizika izan zan: Aundi-zalea, España'ri laguntzea Jainkoari laguntzea zala esaten ebana, bere aldian edo aurreragotik 550 abade erbestean eukazana, abadeak politikan ez dauala sartu bear esan eta esan ibilten zana, bera belarrietaraiño sartuta egonik. Gasteiz'ko gotzaiña, Mujika, erbesteratuta egoan.**

**Baiña abade-Ikastegi au aundi egin eban Lauzirika'k eta aletin guztiak egin zituan aunditasun ori lortzen, batez Liburutegi-arloan. Ikasleak pozik artzen genduan Gotzaiña eta txalo ugariak eta beroak jotzen geuntsazan.**

**Gero Ballester Gotzaiña etorri zan, ona baiña guztiz bildurtia, euskal-arazoa iñondik be ulertzen ez ebana, Madrid'eko agintarien lagun ona.**

**Beronen aldian, Ikastegi au aundiegi zalako, Gasteiz'ko goterkia iru zati egitea lortu eben Madrid'eko agintariak.**

**Eta Gazteiz'ko Seminarioa erdi-utsik eta itun geratu zan.**

**Ba-dirudi gaur berbizkunde pozgarri bat datorrela etxe onentzat.**

\* \* \*

## ERRIA AIZTUTA

**Ikastegiak ondo, oso ondo irakasten eban, eta ez irakatsi beste barik, ezi be bai.**

**Baiña uts aundi bat eukan ezi-bide onak: Erria aiztu eban, aitatu be ez zan egiten. Eta ez uste izan irakasleen pekatua zanik, ararioen zapalkuntza zan eta giro aretan ez zan beste biderik ikusten, ixillik egon eta al dan neurrian norberarena egin baiño. Eta egite au urri geratu zan.**

**Orduko irakasleak gaur be lotsa barik agertzen dira gure artean, zuzendari izan zan Ugalde jauna ez ikusteak pizka bat arritu ba-gaitu be. Beronek azkenengo urte bietan, geure artean euskerea ikasteko baimena emon euskun, obeto esateko, guk ekiteko eta berak ez-ikusi egingo ebala esan euskun. 50'garren urtea zan.**

**Urrin geratu da Barandiaran eta Lekuona'ren aldi txalogarria.**

\* \* \*

## ELEIZ-GIROA

Ikastegiak sartu euskun eleiz-giroa, orduko eran, gaur asko aldatu-bearra izan da, naikoa egokia zan. Eta sendietan bizi-bizi asmatzen zan erri-giroagaz ondo alkartzen zan eta barruan, geienok euskaldun eta fededun urten gintzan. Bearrezko liburu batzuk be, isilpean eltzen jakuzan, esaterako Agirre'ren «De Gernika a Nueva Tork» edo Mujika Gotzaiñaren «Imperativos de mi conciencia» edo «Mit Benender Sorge», Pio XI'aren idazkia, au be aldi baten España'n debekatua. Alemania'ko NAZI'en aurkakoa zan.

\* \* \*

Gaur okerrak zuzentzen lan eta lan eginbearra dago.

# Mundurik mundu

## PIZTIAK EZITA

Lenengo euskaldunak eiztariak ziran. In-guruko piztien eiztari; bei, beor, ardi, auntz eta txarrien eiztari...

Gero, nozbait, piztiak ezi, etxekotu, ta..., artzain biurtu ziran. Ez danok batera; batzuk lenago, bestetzuk beranduago.

Alango artzain erri bateko gizon batek iru seme eukazan. Eta iruetako bateri katua emon eutson dote, eta besteari oillarra, eta irugarrenari, barriz, igetai bat.

Eta irurak mundurik mundu joan ziran. Eta illunabarrean erri batera eldu.

## OILLARRA

Eta illundu zaneko, erri aretako gizonak, eguzkiaren urteerako aldera joan, eta lurrari joka asi ziran. Eta gure mutillak, orduan, arei:

—Zer diarduzue or, lurra jo ta jo?

—Eguzkiari etorrerazoten.

Zelan, ba... ?

—Deitu ezean ez jaku biaramonean eto-  
rriko.

Guk ba-dogu, ba, gauzatxu bat, gau osoan orrela ibilli barik, goizaldean eguzkia ekarrerazoko dauna; eta zoaze danok lotara.

Esan eta egin. Goizaldean oillarrak jo, eta andik bereala eguzkia... Eta errikoak, orduan:

Zenbatean salduko dauskuzue oillar ori?

—Onenbestean.

## IGETAIA

Biaramonean, barriz, mundurik mundu.

Beste erri batera eldu eta an, barriz, gari ebagiten arrizko aizkora bategaz. Oso nekez.

Eta orduan, geure mutillok:

—Ba-dogu guk tresnatxu bat lan ori obeto egiteko.

—Bai... ? Zelango tresnea dozue, ba, ori?

Eta guretariko bigarren mutillak igetaia eskuratu, ta rist-rast, rist-rast, bere saillea ebagi, Jesus amen batean. Eta errikoak, orduan:

—Salgai dozue tresnatxu ori?

—Bai..., ondo konponduko ba'giña.

—Zenbatean, ba...?

—Onenbestean.

## KATUA

Eta aurrera, barriz be, mundurik mundu. Beste erri batera iritxi ziran, orrela. Emen barriz, arratoi-izurrita ikaragarri bat, eta erriko guztiak arrika ta makilka arratoi-eizean.

Orduan, areitariko irugarren mutillak:

—Ba-dogu guk gauzatxu bat, arratoi guztiak bereala garbituko dauzana.

—Bai...? Eta zelangoa da, ba, gauzatxu ori?

Mutillak orduan zorrotik katua atara, eta begien itxi-iriki batean arratoi guztiak il. Besteak orduan:

—Zenbatean salduko zeunke?

— Onenbestean.

Eta naiko dirua arturik, etxera pozik iru mutillak.

# BRUNO ZABALA

Irala'k eraiki eban Paraguay'ko uriburu dan Asuncion, Garai'tar Joanes'ek Argentina'ko, Buenos Aires, Antxieta mixioalariak Brasil'eko Sao Paolo uri andia. Eta Bruno Zabala'k Uruguay'ko Montevideo.

Durango'ko semea zan, aita Zumarraga ta Ibarra kapitan ospetsuak lez.

1682'garren urtean jaio zan. Gizon andi zan aren aita. Ameriketako lurralde askotako agintari izandakoa.

Iru urte ebazala galdu eban bere aita, ta aren ama alargunak azi eban bere Brunotxu bizkorra.

### GUDARI

Emeretzi urte ebazala etxetik urten, eta Flandes'ko gerratera abiatu zan. Eta kapitan maillara eldu izan zan laster, ango eraso ugarietan ondo jokatu.

Beste gudu bat sortu zan andik arin Espaiña bertan. Eta andik ona etorri, ta bertan esku artu eban.

Amabi urte luze iraun eban «Guerra de Sucesion» deritxon guda orrek. Pirineotik Gibraltar' erañoko lurralde geienetan ibili zan burruka.

Lerida'ko erasoan beso bat galdu eban. Alcantara'n barrio zauritu, ta atxillo artu eben arerioak. Alan ta guztiz be iges egin eban.

Guda ori amaitu zaneko, 34 urte ebazan Zabalak, eta «maris-

cal de campo» izateraiño iritxi zan.

### AMERIKETAN

Guda luze au zala-ta, Espaiña'ko arerioak Ameriketako lurraldeai erasoka asi ziran.

Gero, bertako agintari ta gudariak naiko asarre ta asaldatuta egozan Espaiña'ko erregek bertan-bera itzita eukazalako.

Orrek guztiak zirala-ta, gure Zabala bialdu eban Espaiñako erregek Ameriketara, Rio de la Plata'ko lurralde guztien buru ta agintari lez.

Aratu zaneko Prantziarrak sartuak zengozan ango lurraldetara. Zabala'k orduan ango bere mutillak armaz ondo jantzi ta eratu ondoren, Prantziarra eraso eutsen. Eraso ta apurtu; apurtu, ta andik bialdu.

Portugal'darrak etorri ziran Prantziarren urrengo. Brasil, aita Antxieta'k jendatutako lurraldetik etorri ziran, eta Uruguay'ko zabaldietara sartu.

### MONTEVIDEO

Zabala'k orduan bere itsasontzi zarrak konpondu; beste barri batzuk egin, eta areen aurka urten eban. Eta laster bialdu ebazan danak aurrean.

Uruguay lurralde ederra zan, baiña landu bakoa; landu bakoa, ta jente urrikoa.

Ori zala-ta, Espaiña'ra laguntza eskatu ondoren, Lemoa'ko seme Altzaibar kapitana etorri jakon, berregoitamar familia berrri ta laureau.n gudariz inguratirik.

Altzaibar'en lagunai bereak eta «tapes» izeneko bertako milla inditar geiago batu, ta Montevideo'ko uria eraiki eban Zabala buruzagiak.

Uria eraiki; aren kai ederra jantzi; ta aren inguruko mendi tontorrek indartu, kañoez indartu bai, itsaslapurren erasoan bildurragaitik.

### GIZANDI

Montavideo'ko uria eraiki, ta Paraguay'ko matxinadak garaitu ondoren, Chile'ko agintari egin eban Espaiña'ko erregek.

Eta arako gertukeretan ebillela, bat batean it jakun 53 urte ebazala. Ona emen zer diñoskun oneri buruz Uruguay'ko idazle Raul Montero jaunak:

«Aundi ta eder..., gudari bizkor, agintari trebe, ta patxadazko gizona zan; zorrotza eta biotz onekoa, une berean. Au dogu Uruguay'tarrok iñoz izan dogun egintari on eta andiena».

## ELEIZEA

# BATIKANO TA TXINA (II)



Eleizeak 29 irarkola eukazan eta 55 izparringi ateraten ebazan.

### GIZARTE-LANA

Gizartearen onuraz Eleizeak egi-ten eban lanean, 216 goiso-etxe, 847 osagilletza, 272 umezurtz-etxe eta legentsutegi batzuk ziran.

«Aurora» Shangai'ko Jesuiten Ikastetxe Nagusia, Asia guztian ondo ezaguna zan eta bere izar-ikustokia ta eguraldi aldaketak jakitekoa, ospetsuak mundu guz-tian.

Katolikuen ondoan, milloi bat eta erdi protestante egozan eta oneik 13 Ikastetxe eukezan.

Kristiñau Ortodoksoak 200.000 ziran.

\* \* \*

### ELEIZ-AGINTARIAK

1939'ko abenduan XII Pio Aita Santuak, Txina'ko eleiz-arauden iru gizaldiko eztabaidak ebatzi ebazan, «Propaganda Fide» eleizki-zunetan aurrerantzean euren jatorriko kultura arauak erabilteko baietza emoteko baimenduz.

1946'ko jorraillean XII Pio Aita Santuak berak Thomas Tien-Ken-Sin txinatar lenengo kardenal egin eban eta ille bi geroago Txina'ko Gotzaintza eratu eban, 20 Goi-Gotzain eta 79 Gotzain izendatuz eta 38 eleiz-arduradun ipiñiz. Antonio Riberi izan zan lenengo Nuntzioa.

\* \* \*

### JAKINTZA-LANA

Komunistak jaurlaritzta artu ebe-  
nean, 1949'garren urtean, gitxi go-  
raber, iru milloi ta erdi katoliku  
egozan Txina'n eta Jaungoikoaren  
erriaren zati au zaintzeko 146  
gotzain, euren artean 60 Txina'ta-  
rrak, 13.600 abade, lekaide ta le-  
kaime, erdiak Txina'tarrak, 874  
abadegai nagusi ta 2.689 txiki.

Iru ikastetxe Nagusi eukazan  
Eleizeak. Bigarren maillako Ika-  
stetxeak 202 eta 1869 lenengo mai-  
llakoak. 2.000 ziran Kristiñau ika-  
bideko ikastegiak.

### KOMUNISTAK

Orrelan egoan kristiñauen ego-  
rea Txina'n, Erriko Errepublikan  
Txina'tarra sortu zanean.

1949'ko garagarrillaren lenen-  
goan, Erromako Eleiz-Agintaritzak,  
komunistakin lankide izatea ga-  
lerazoz agindua atera eban.

Orduan katolikuak erriko Go-  
bernuagaz lan egitea ez eben onartu  
eta orregaitik jazarpen gogorra  
sortu jaken. 1952'rako bost milla  
mixiolari atzerritar kanpora bial-  
du ebezan, euren etxeak kendu,  
eurak agirian epaitu, atxillotu eta  
espetxeratu ondoren.

1950'garren urtean, Buru-Jabe-  
tza Irukoitza sortu eben Txina'n,  
Aita Santuaren menpetik ango Elei-  
zea aldentzeko. Pio XII'ak Txina'ko  
Erri-Eleizearen sortze au sasoiz  
gaiztetsi eban, enziklika baten bi-  
dez.

Artu-emon oneik mingotsago bi-  
urtu ziran, Pekin'eko Gobernuak  
Riberi Nuntzia txarto ikusia zala  
adierazo ebanean.

Alkarte Txina'tar Abertzaleak,  
1957'ko dagonillaren 3'an amaitu  
eban batzarrean, Laterriko Kato-  
likutasuna onartu eban, baiña Ba-



tikano'ko Barri-Etxea dan Agencia  
Fides'ek, 241 ordezkarien artean  
azpikerizko asko zirala esan eban.  
Batzarrak artu zituan agerbidera-  
ko papalak Komunisten alderdiak  
egiañak ziran.

Illebeta barru asi ziran Txina'ko  
alderdi batzutan, euren aukerako  
gotzaiñak sagaritzen.

II Batikano'ko Batzar Nagusira  
10 Gotzain etorri ziran.

\*

### ERROMA'REN ERANTZUNA

1962'garren urteko epaillan 42  
gotzain sagaratu ziran. Sagaratze  
oneik baliokoak ziran, baimen ba-  
rik egiñak ziralako bidebakoak  
izan arren.

Pio XII'ak argi berba egin eban  
eta sendo zaindu zituan eleizearen  
eskubideak arlo onetan. Pekin'go  
Agintari Nagusiak, Eleizeak eta ez  
Txina'tar Agintaritzak apurtu eba-  
zala artuemonak esan eban. Isil-  
tasunezko egoerea sortu zan luza-  
rorako.

XXIII Jon Aita Santuaren al-  
dian zerbait bigundu zan egoera au,  
baiña orain be, Erroma'ko baimen  
barik Gotzain barriak izendatu  
dira eta II Jon Paulo arduratsua  
dago.

LETONA'k

# JAKINTZA TXANGO

## JAKINTZARA

Gaztedia'ren eziketak, beti euki clau garrantzi aundia ludi-birako inguru guztietan eta, zetan esan-bere ez urte askotan, eundaka urtetan inok menperaturik daukagun euzko-lur onetan, menpeztalleak nai izan dabena baiño besterik jakiteko erarik ez dabelako izan bertoko semeak, nai-ta beste edozein lurralde-taku.a baizen azkarrak izan.

Eta, gaztedia eziteko, kirola da bide egoki bat gure uste apalian; bada, gaztea geldirik euki nai izatea, egonarazotea, oso gaitza da, ia-ia eziñekoa, here odol beroak ez-dautsolako lagaten.

Ori jakiteko ez cia azkarra izan bearrik aintziña gazte izan garanontzat beintzat, geure aldian erraz su.smau dogulako bultzakera ori.

\* \* \*

Jakiña, gazte guztiak ez dabe almenik era guztietako kirolak egiteko eta, orixe-gaitik gazte orrei atsegiñen, eta egokien, jatorkien kirolera bultzatuten alegindu bear gara bai erriketa edo politiku alderdietan eta kirol-bazkunetan sarturik eta arduradun ba-gera geiago, alan be bazkun ori menditarra, mendigoizale osokoa edo zatika kitol ori ba-dau beren zenean. Kirolen bitartez erraz zaletutzen dalako era askotako jakintza arazoetan.

\* \* \*

## MENDIRANTZA

Gaiñera, mendigoizaletasunak edo menditar kirolak aldaramen edo gai bat dau beste kirolak ez dabena; edozeiñek, makalak zein senduak, emakumeak zein gizonezkoak, zarrak zein gazteak, adin guztietakoak egin leikee kirol garbi osasungarri ori, neurritz eta aintzakotzat artu-ta.

Ainbat mendizale-bazkun dira gaur-egun gaztetxu ta ain gaztetxu ez diran neska-mutil taldeak mendi-rantza zuzentzen diarduenak, kirol orren bitartez ikusiten dabelako gaztedi orren zintzotasun a.

Galdakano'ko Ganguren mendi-zale taldea be eretxi onetakoa da-ta, aspaldiko urtetan orretan jarraitzen dau: Gazte taldeak mendirantza eroaten.

\* \* \*

## EGITARAUA

Egikuzun orretan iraungo ba-dau, Ganguren'ek —eta bai beste euzko bazkun batzuk be— urteazkenean gertuten dabe urrengo urterako egitaraua. Au da: mendi-izen lerrokada bat aukeratuaz urtebarruko ibilkeratan ikustatuak izan daitezcan.

Orretarako baiña, zerbait ikusgarri ta jakingarri euren gallurrean edo aldamenen, daben mendiak izaten dira lerrokada orretan ipiñiten diranak,

geien baten, jakiña!, gazte orreik jolastuz eta euren soin gaztea soinkatu ta igurditen dituen bitartean gure Aberri maitagarria ezagutu dagien.

Orretarako barriz, beti izaten da batzordean baten bat, zer non dagon argi txangolariei azalduteko.

\* \* \*

## TXANGO

Urtarrilla'ren azkenengo igandean izan genduan aurtengo lenengo txangoa eta, gu be beratzen izan gintzazan, ibilli bear ebezan inguruak eta ongi ezagutu, atsegin jakuzalako.

Goizeko zortziretan urten zan jende-beribil aundia Galdakano'tik eta, Bedia'n gaztetxu mordo bat artu ondoren —gutziz berrogei ta amarren batzordean diran Pagatza basatxe-taraño, bertan berebilla laga-ta ezkerreko aldera dan Erdella mendi lerditsu edo piñutsura igoteko.

678 neurkin goitiko mendi onek, gaur-egun ez dau zer-ikusitako piñutsu dagolako eta aldi labur bat bertan egin eta Sarkaldera jatsi gintzazan, beragoko mendi-lepoan Ipar-aldera artuta barriz Santamariñe-zar mendi gallurrera igoteko.

Kistartasuna Bizkaia'n sartu barritan edo, lenaldiko gizaldietan esan nai dogu, mendi orretan here Basatxonua ei-eguan Mariñc .deunari eslcifiña.

Gaur-egun, arrizko gurutze aundi bat dago basatxonua egondako astarrenetan bertan. Be-aldean, laiñotsu aurkitzen zan eta alkar ezin ziran ikusi baiña, goian egotaro ona egonik, pozez jolastu ten ziran gaztetxuak ordu erdi edo gciagoan.

\* \* \*

Barriz len aitaturtako mendi-lepora jatsita, bertatiz zear dagoan burdi-bide zabaletik jatsi gintzazan Mendraka auzunera.

Sei edo zazpi basetxe zabalez orniduta dagon auzune ori, Elorrio'ren ikuspegi bat dala esan leike, Toma deunaren baseliza txikitxu apaiña goi jagole dauala. Baita basatxonu orren aldamenen lau edo bost antziñako illobi dagoz, utsik jakiña.

Auzune ortatik beratuago Argiñeta'ko Andrian deuna daukagu, eta, bertako illarriak gaztetxuui irakatsiteko eta euren antziñekotasuna azaldutarren bertaraño jatsi gintzazan. Bertan egotalditxu bat igaro ondoren eta berebil aundiz barriz etxeratzeke, bidean diran eleiza, dorre-etxe ta olakoai buruz ainbat azalpen emoten euskuezan bi-tartian, eta, urren baten beste zer ikusi ta zer ikasi dagon lurralde batzuetatik bardin egiteko asmuaz, Gure ustez orixe da gure gazteari geure Aberria, Euzkadi, ezagutuazoteko bide egoki bat.

ALTUNA'tar Josu

# ARAZO GORRIAK

Igaro dan urtarrilean, Deustu'ko Ikastetxean lan egiten dauan «Euskal Kultur Mintegiak», aste oso baten ban uan Euskal Iparraldeko lurraldeetan gaur egun aurkitu geinkezan arazo gogor eta gordiñanek adierazo daukuz, bai diru-oiñean, bai izkuntza-bidean, kultura-arloan eta eiriketa naiz politikaren jokabide nobarmenetan ain zuzen.

## EUSKERAZ

Zubero'tar, Benabarra'tar ta Lapurdi'tar gazteen bide jatorrez, ango jazokizunen gorabera garrantzitsuenak jakin doguz.

Zer pozkorra dan itzaldi guztiak euskeraz izan dirala jakitea!

Orretan egoaldekoai ikasbide zuzena damoskue.

Ori ta be, taznalez, ez da dana pozgarria.

Eurak emoniko gai ezbardifien azalpen zintzo ta garbiak bein baiño geiagotan arnas estu ta epeltasun bizian itzi gaitue.

Ez da arritzeko gauzea, ikusiko dogunez.

\* \* \*

## BAIKOR ALA EZKOR?

Gure laterria Europa'ko Ekonomi-Batzordean sartzekotan, ekonomi-arloan lugintza ta abelazkuntza Ikontuan artuta, ondo kokatuko litzakela deritxogu.

Kultura ta erriketari buruzko arazoak ez ei dira, ain argi ta garbi ikusten, eta bai laiño goibebez esalduta.

Baiña ez dogu itxaropena galdu bear.

Orretan, iparraldeko gaztedia baikorra ei da, naiz-ta lanpostuen urritasunak erbestera joan-bearra sortu. Au aspaldiko arazoa da eta, gaur egun gaztedi jasankor au oso gutxituta aurkitzen da.

## ETORRIAK

1975' garren urteko izen-arte edo bizi-lagunen zerrendan, 227.805 biztanle agertzen ziran iparraldeko iru euskal-erkiak batera arturik.

Itxasaldeak bakarrik izan eban goratze pizka bat, % 7,8. Alderantziz, barruko lugin-lurraldeak berantza, gitxitzen, joiazan.

Benabarra'n eta Zuberoa'n, ain zuzen, % 8,2 izan zan berakadea.

Esate baterako, Baigorri'koa zazpi urtetan % 12,4'koa izan zan eta Atarratze'n berakadea % 10,7'koa.

Iparraldetarrak Bordele ta Paris' era joaten dira geien, gitxi be gitxi Ameriketara, eta ara doazanek egoaldeko euskaldunak batu eta abertzale giroan bizi dira.

Laburdi'ko itxasaldean eundik 61,6 kanpotarrak dira eta % 38,4 euskaldunak.

Guztiz zazpi urtetan 48.500 bizi-lagun barri sartu dira eta kanpotarrik geienak «pieds noirs» eta Azjalia'tik etorriak dira. Ez dira euskaldunakaz ondo alkartzen.

Barruko Auñamendi inguruan zaintzen dira ondoen euskaldunen oiturak, izkuntza, atsotitzak, elezarrak, ekan-duak eta abar.

A turri-inguruko zabalgunetan euskerea baiño biziago dago gaskuiñen izkuntzea. Dana dala, Labastide'ko gazteak geroago ta euskaldunago dira.

\* \* \*

## BASERRIA

Baserriak 7.870 dina eta lugintzarako erabilten diran lurrak 20.000 ektarea.

1955'tik 1976'ra 3.483 baserri utsitu dira. Barruko Auñamendi-inguruko «Ezponda» lurraldeetan baserria bizi-bizirik dago eta 4.644 basetxe inguru zenbatu leikez.

Salerosketan, okelea ta esnea % 43 inguru dira; ardien okelea, bildotsak eta esnea % 20,6. Esneaz, gaiñera, entzute aundiko «Roquefort» gaztaia egiten da.

Txarrikiak, arloak eta barazkiak salerosketan urtenbide ziuerra dabe.

\* \* \*

## ERRIKETA

Iparraldeko euskotarrak geienak Prantzi'ko sentipena oso barruan tinkatuta daude.

Jean Luis Davant'ek esan eban lez: Prantzia' gaz batera ta Alemania'ren aurka iru guda izan dabez gizaldi baten eta guk beste ainbeste España'ren aurka.

Alan be, ba-dagoz abertzale talde batzuk: **ENBATA**, 1963'tik; **EHAS**, 1974'tik.

Ba-dagoz izkillu-bidezko burrukearenz alde jokutzen dabenak be: **IPA R ETARRAK**, **EUSKAL ZUZENTASUNA**.

Al dogun bestean, lagundu dagiegun Iparraldeko amaiai, biotzez eta egitez, ez ostera izkillu-bidez. Odol jarioari odolak darraio beti. Ez dagigun ezelan be esaldi au aiztu.

**ARREGI'tar Josu'k**



# BARANDIARAN EIA LEKUONA ( GASTEIZ'EN)



Euskal kulturaren gizon ospetsu bi aukeratzekotan geienen autarkiak Barandiaran eta Lekuona'rentzat izango ziran, baiña Gasteiz ko Seminarioak ez eukan olako auteskunderik egin bearrik.

Barandiaran eta Lekuona izan ziran Abadegaien etxe aretan billaketarako lenengo oiñarri sendoak ipiñi ebezenak eta oiñarri orrekin gainean jaso da gaurko Ikastetxe Nagusiaren saila berezi au.

Ordua zan gizon ospetsu onei esker ona agertzeko eta aundikiro agertu jake oraingoan.

Ez dira gizon biak mailla ta saila baten langille izanak, naiz ta alkarren barria jakinda eta sarritan bide biak alkartzen dirala jokatu: Barandiaran'ek giza-iztian, antropologian egin dau lan, Lekuona'k osteria izkuntzarloan.

Biak dira abadeak.

Omenaldiaren aurretik, ikastaro eder bat eratu dabe Gasteiz'tarrak, zezeillaren 13'tik 15'era eta azkenengo egun onetan omenaldi egokia.

## IKASTAROA

Iru eguneko izan da ikastaroa eta iru egun orrekin barruan, berbaldiak eta jente-

aurreko alkar-izketak kontuan dirala, 12 ekinaldi.

Gai guztiak zabal-zabalak izan dira. Akatsik aurkitzekotan, auxe izan leiteke bat: Gai zabalegiak denpora laburrerako. Izlariak beti ariñeketan ekin bearra izaten eben. Baiña, beste alde batetik, Euskalerrian Eleizeak izan dauan jokabidea osoan agertzeko egokiak izan ziran.

Izlari gaztiak jakintsuak eta euren gai orretan berezituak izan zira. Gogoratu dagizan abizen batzuk: Sorazu, Gorritxo, Telletxea, Mañarikua, Portilla, Zabaltza, Aldai, Etxebarria, Apellaniz, Ojanguren... Eta Gudaldia aztertu zanean, aita Olaso'ren itzaldi labur eta beroa.

Berbaldirik geienetan 200 lagun inguru izaten ziran.

## OMENALDIA

Bariku arratsaldean, seiretarako, seminario'ko ekintza-areto ederra bete-beterik egotan: aurrean eleiz-gizonak eta ostean, korupean, erri-agintarien jarlekuak.

Gotzain oneik ikusi genduzan aurrean: Compostela'koa, Bilbo'ko biak, Donosti'koa, Iruña'koa, Los Rios'ko Biktor Garaigordobil Otxandio'tarra eta Gasteiz'koa. Onein inguruan omenduen irakaskide izandako talde aun dia.

Taize'ko Aleluia abestu eben teoloji-ikasle diran abadeak eta Arzalluz ikasleak egin eban aurkezpena. Gero Gasteiz'ko Larrauri Gotzainak omendu bien bizitza ta lanak agertu zituan.

Erroma'ko baimena euskeraz eta erderaz irakurri-ondoren, irakasle-kapelak ipiñi eutseezan omenduau eta oneik euren irakastaldia emon eben: Lekuona'ko euskerearen botatiboari buruz gauza jakingarriak esan zituan, lenengo euskeraz eta gero, tamalez berak iñoan lez, erderaz. Barandiaran'ek Giza-bidea ta kristautasuna artu eban gai lez eta izkuntza bietan berba egin eban.

## GORATZARREA

Erdi-aroaren asierako goratzarre gogoangarria abestu genduan koruak eta jenteak txandaka. Ikmaro'ren goratzarrea dauka izena, seigarren gizaldikoa da, geroago Ikmaro'k osotua, eta antxiñatik abesten zan Gasteiz'ko Ikastegi onetan.

Amaitzeko, AGUR JAUNAK eta guztiok poztasunez bakoitza bere bizilekura.

OLAZAR'tar Martin'ek

---

---

# Antxiñako neurtitzak

---

---

Bai, antxiñatzuko kontuak eta antxiñatzuko bertsoak dituzu, irakurle, emen zure begien aurrean dakuszuzanak.

Begoña'n, El Carmelo, karmeldarren espetxean nengoan egunetan egindakoak.

Gu gengozan espetxetik eun eta berrogetamar metrora gitxi gora-bera, beste espetxe bat egoan. Gu gengozan espetxearen atzeko aldetik ia ikusi be egiten zan beste espetxe ori.

Emakumeen espetxea zan.

Bertan eundaka emakume egozan gu bezelaxe lotuta edo azkatasun barik. Guztiak, edo geienak beintzat Euskal Erriko alabak ziran, Emakume Abertzale Bazkunekoak.

Nire espetxe-lagunak ordurako Nanklares de Oka (Araba)'ko espetxera eroanda egozan.

Andik egun batzutara ni be an izango nintzan.

Joan aurretik, obeto esateko eroango nin-duen eguna baiño lenago, Emakumeen Es-

petxe biurtuta egoan Orue-Etxean atxillotuta egozan emakumeei neurtitz batzuk egitea bururatu yatan.

Neurtitz edo bertsuok iñoiz be etziran emakume atxillotuengana eldu, neure ustez, baiña neugaz erabilli ditut ia berrogeta bi urteotan.

Orduntxe burutik lumara urten eusten bezelaxe doaz emen.

Ondo dakit berez argitaragarri be ez dirala. Ainbeste urtez gordeta egon diralako eta ingi edo paper zaarren artean Amerika'ko lur.-aldetara be lau edo bost bider joan etorria neugaz batera egiñak diralako ZER aldizkari politean tokirik aurkituko ba'lebe, neu ez nintzake asarre jarriko.

Bear bada norbaitzuentzako interesgarri izatea jazo leike.

Ona emen bertsuok nire lumatik urten ebenean bezelaxe zuen aurrean.

---

## BESTE TXORIEI BEGIRA

(Orue-etxeko emakume espetxe

*Ikusi al dozu iñoiz  
Txoririk kayol barruan,  
Beste txoriei begira,  
Bekatzez, itun, gaixoa...?  
Ai! nor lebilken  
Adarrik adar  
An mendi goian  
Dagoan zugaztitxoan...!*

*Txoritxu orren antzera  
Nago espetxe barruan,  
Azke diranei begira  
«Azkatasuna» goguan...  
Ai! nor lebilken  
Egurastuten  
An goyan dagon  
Atx arteko zelaitxoan... !*

*Kalean zear goizero  
Dakustaz azke diranak;  
Batzuk doaz alai, pozik,  
Itun, negarrez geienak...  
Ai! nor legoken  
Azke kalean  
Biotz biotzez  
Laztantzeko norberenak...*

*Espetxe leio batetik  
Dakustaz Orue-espetxean  
Txiñurri pillo antzera  
Emakumeak barnean...  
Ai! nor legoken  
Eurek bezela  
Bell maitatzen...  
Euzkadi beti goguan...!*

*Aurrera, andre kementsuok!  
Gora, neskatil liraiñak!  
Aberri maitatzeagaitik  
Il arteraño bikaiñak... !  
Ai! nok leukaken  
Euzkadi'rentzat  
Zuen adore,  
Zuen biotz eta zaiñak!*

*Zoaz nigandik, bekatxa!  
Betorkit kemen laguna!  
Kalean gorroto baño  
Obe emen maitasuna.  
Ai! noiz lortuko  
Danok batera...  
Maitasun, bake...  
ABERRI' T-azkatasuna?*

*Iñoiz ikusi al nozu  
Kaletik espetx-leioan  
Txori kaiolatuak lez  
Emen giltzape barruan?  
Ai! zu ba'zengoz  
Aberriarren  
Ni nagoan lez  
Zenbat oldozkun gogoan!*

«El Carmelo» espetxean,  
1938-7-15.

**BARBIN**  
(Batiz'tar Bingen)



# Leizaola Lendakaria

## Goiria

### BIZI-POZA

Leizaola Euzkadi'n dogu.

Danok dakizue zelako arrera egin eutsoen bai Sondika'n eta bai San Mames'en. Eundaka ta millaka bera goratzen.

Arrezkero ostondu egin dala esan daiteke. Ixildu egin dala. Berak ainbeste nai eban atsedena dia aurkitu dau. Pozarren bizi da here Donosti'n. Bere alabaren etxean. 43 urte luze atzerrian egin ondoren merezi eban bai onelako bizi-poza.

### LANAK

Beragaz ez dot izan artu-emonik. Alan be bere egiteak eta bere idazlanak gogoan do-dazala nortasun aundiko gizon-ztat daukat.

Gogoan daukat Madrid'ko Bartzarrean berak egindako lana. Gogoan an esandako itzaldiak. Eta batez be gogoan, ezin aaztu-takoa da-ta guda-egunetan eta arrezkero egin dauan lana. Lan izugarria, aundia, ixilla.

Agirre Jauna il zanean eta bere gorpu illaren aurrean leporatu eutsoen Euzkadi zuzentzea.

Gizon ixilla berez; idaztiakaz maitc-minduta, batez be Euzka-di'ri buruzko literatura ta kultur arloagaz.

\* \* \*

### ZORNOTZA'N

Izan dauz here tristurak. Izan dauz bere estu ta larri-aldiak ugarte bezala erdi-bakarrik bizi izan da ainbeste urtetan-eta.

Guda-aurreko ta guda-egune-tako bere gertaldi bi gogoratuko dodaz. Seguru asko irakuruleak eta euzkeldun askok edo geienak ez dabez ezagutuko ta jakingo.

Guda-aurretik espetxean sartu eben Zornotza'n. Politika-arazoa noski. Auteskundeak zirala-ta edo nunbait. Zornotza'ko udaletxean daukez orduko here argazki batzuk.

Berari erakustekotan dira ta berari emon argazkiok. Eta zergaitik ez omenaldi bat egin berari argazkiak egun ortan berari emonez?

### LEKAROZ'EN

Beste gertaldia. Guda eguneta-koa. Lekaroz'en izan nintzan bein 1950'garren urtean. Ni be prallea nintzala-ta bazkaldu be curekaz Kaputxinoakaz egin neban.

Negua zan. Negu gogorra. Otza... edurra mara.-mara. Solo ta mendiak zuri-zuri.

Bazkal-aurretik etxea erakutsi eustan bertako nagusiak. Ba-da an Ikastetxe aretan, bertan ikasi ebenen argazki-illera. —Ezer ez dozu oartu? —Esan eustan nagusiak.

—Ez ba.

—Utsune bat ez dozu emen ikusten?

—Bai. Alaxe da.

—Leizaola Jaunarena da. Zer dala-ta gero?

—Guda azi ta laster deia izan genduan Madrid'tik; Leizaola'ren argazkia ernetik bein-goan kendu bear genduala. Lotsagarri zala Ikastetxe onentzat onelako gizon zaitzalle baten argazkia aukitzea.

—Barrero jartzeko garaia elduko da - esan neutsan. Ez izan ezbairik.

\* \* \*

### GAUR ZER?

Biotz aundidun gizona Leizaola. Abertzale oso-oso.

Euzkeldunen tarteko banakuntzak eta eztabaidak miñez josita euki dabe beti bere biotza.

Bestetik etsaiak eten barik burruka Euzkadi'ren aurka.

Baiña askatasun-argia erdizka ba'da sumatzen da, agertu da, eldu da.

Leizaola bere aberrian dogu.

Bere etxean. Baiña ez da geldi egongo. Lanari ekingo dautsa beti lez. Agintariari lagundu. danai aolkuak emon; maiari josita idaztiak irakurri, arakatu, idatzi.

Leizaola jauna: zure azken urteetan eta zeure Aberrian zori-ontsu izan.

# ILLUNETATIK ARGITARA

## BERROGETAK URTEAK

Azkeneko berrogetak urte oneik oso mingotsak izan dira gure Euzkadi ta batez be euskerearen nortasunarentzat.

Bai, alantxe da.

Berrogei urte onek oker asko ekarri dauskue eta gure euskal oiñarria sakabanatuta ipiñi dauskue.

Baiña, Jaungoikoari eskerrak, azken-orduko arnas estuak iraun dau eta berbiztuten asi gara barriro.

Esan leike barriro euskerearen itxarkundea Euzkadi guztian, ikastolen bidez ba-datorrela, gure ele gaixua sendo ta sutsu agertzen asi dala.

\* \*

## BERBIZKUNDEA

Bai, jaun-andreok, gaur inguru guztian ikastolak ugaritzen dira, itxasertz eta mendietatik gure ele maitagarria txaiderratu da eta Araba ta Naparroa-aldean be biztuten asi da euskal maitetasuna.

Beste arnar bat urte barru Euzkadi guztian euskera asko entzungo da. Alan uste dogu beste okerrik ez ba'dogu.

Baiña... Berrogeitak urte oneik ondo dakigu noraiñoko kaltea egin dautsoen Erriari.

\* \*

## SABIN'EN ERAGIÑA

Gure Sabin etorri-aurretik, erriak euskera egiten eban, baiña gaizki.

Euskerea zan gure izkuntza, baiña egia esateko lotsaz egiten zan erdelahunen aurrean, gaztelera euskal-usaiñekoa zalako dana.

Euskal idazle askorik ez egoan eta egozanak be asko sasi-idazle ziran, bakoitxak bere erara idazten ebala.

Euskaldunok be ez geunkan euskeraz idatzia irakurteko gogorik.

Alan eta guztiz be, eskerrak emon gaunskioez iru-lau abade ta beste eleizgizon batzui gure ele maitagarri au gaizkatzen alegindu ziralako.

\* \*

## GALBIDEAN

Euskerea azken-arnasetan egoan ba. Oso gaisorik aurkitzen zan, nire ustez. Ez egoan oraindiño gaurkoa lako ikas-nairik, batez be itxastar eta baserritar-artean.

Or euki eban koxka galanta gure euskereak: Dana galdu-antzean egoala, bai euskera eta bai euskal izakerea.

Eta ona emen non etorri jakun Sabin Aundia, ludi guztiaren aurrean «Euzkadi euzkotarren aberria da» esanez.

Euzkadi'k bere nortasuna daukala, gure euskerea beste ludiko izkintza guztien aurrean ederra ta txukuna dala esan eta erakutsi euskun Sabin maitagarriak.

Berak agertu eban idazkerea, erreza ta garbia zan, baiña berrogeitak urte madarikatu oneik oso nastaturik ipiñi dauskue, batez be atxea dala ta ez dala, aldi illun areetan.

\* \*

## GARBITZEN

Askok onartu eben jokabide ori, baiña gaur ba-dakigu nor nor dan.

Gaur arte gitxi ikasi da gai au, baiña orain gauzak argiago agiri dira.

Joan gaitezau ba bide zuzenetik eta gura dauana datorrela gugaz, besteen bideak zertan artu ez daukagu geurea argi ikusten dogunean-eta.

GORRI'K

(Karakas'en idatzia)

# KEPERIN ETA KARMELE

I] ziran biak, senar-emazte zintzoak. Jeltzaleak. Ezeeuken umerik, baiña zenbat Ian, eta zenbat onura Aberri-aldez!

Aldizkari baten irakurri dot, Jel-aldez idatziriko lantxu batek, zelako eztabaida ekarri eban. Lantxu orren aurka idatzi ebana, be, il zan; baiña ba-eukazan seme-alabak. Eta seme gazteenak, bere aita goralduten eta bere asmoa jarraituteko, atara dau barriro arazoa argitara.

Eztot ipiñiko izenik. Abertzaleen artean kezka bat iziotuten ba'da, nik ez dot sutara egurrik bota gura.

Idazki orren azken crantz semeak diño: «Eze-tsia, bere lanarentzat izan zan ez lagunarenzat.» «Eta argibiderako diño: Eztabaida ori jazota, guda igarota gero, alkarregaz bizi izan dirala, Ipar-Euzkadi'ko erri txiki baten».

Itz orreik gomutapen asko ekarri daustez burura.

Bai, Ipar-Euzkadi'ko erri txiki baten bizi ziran

senar-emazteak eta bere etxea emetik igesitako gaztientzat aterpea izan zan. An aurkitzen eben, jana lo-gelak eta ama baten ardura ta zainak.

Egun baten, nik be etxe orretan ikertu nebazan. Etxe atan gordetan ebezan ainbeste idatzi, aldizkari, izparringi ta argazki.

Alkarregaz bizi zirala diño semeak.

Etxetxu atan izango ete zan?

Kistau zintzoak dana parkatu. Artuko ete eban, bere aurka ainbeste idatzi ebana aberkide anai lez?

Ori izango zan zuen gurenda.

Orregaz argitzen zan, Euzkadi ta azkatasuna, maite ba zenduen, eurak baiño barrurago ta gorago, zuen biotzetan, Jaungoikoa.

Ori zuen garaia.

Areitz-ganean dogu Gurutze Deuna, beti geure Goi-Buru.

**UTARSUS**

## E D U R R A

Zer zara goitik zatozen edur?  
Zein da zure errezuma?  
Nor da zure sorterriko aita?  
Ura al da zure ama?

Zuri zuri zatoz lur gainera,  
gardentasunez illuntzen.  
Bideak galduazo dituzu,  
arri danak menperatzen.

Maindire zuria lur osoan;  
mendia ta otz zuria,  
lurreko ar danak ilten doaz  
negarrez dago lurpia.

Ixilik datza otza zelaian.  
Edur guda sortu danez,  
ez dago biderik, ezta gizonik;  
oro etxean bildurrez.

Edurra da agintzaille nausi,  
ertz guztiak artu ditu,  
mendirik garaienak lenengo  
anckerkeriz zapaltzeitu.

Kañoi ta azkarizkillarik ez dau  
bakezko guda iduri,  
gau baltza egun zuri biurtu,  
ai maitasunezko uri!

Baserri ukullu barrenian  
beiak illuntasunian,  
arbiak, otzez dardar, soloan  
izera ilkor azpian.

Esne zurik ez doa kalera,  
kanerdiko edurpean,  
gosez beiak ukullu zarrean,  
gosez umeak kalean.

Eleiz dorre zarreko kanpaia,  
il ein al da zure otsa...?  
gorpua dakarre edurtzetan  
amaituta arnas otza.

Munduko zarata oro doaz  
edurpera il ostean,  
edur lurra otz, ta gorpua otz,  
bizia amaitzen danean.

Zuri garden dago izadia,  
ta goizez egun sentian,  
eguzkia agertzen da ortzian,  
dizdiz, lurraren gainian.

Edurtzarik nagusiena da.  
Otsoak dabiltz mendian.  
Pisti guztiak lur zuloetan  
bildur otzez il zorian.

Eguna, dardar, gau biurtu da.  
Mendiko edur tartean  
auntzen karraziak entzun dira  
otso-zarreen erpapean.

PAULIN

---

## ARAZOAK

---

# JAZORIKOAK GOGORATZEN

Amar bat urte dala edo, ume euskaldun talde aundi batekin, Gernika'ko Batzar Etxea ikustera joan giñan. Umeok, «Kili-Kili»'koak ziran ain zuzen be eta eskursiñoa, euskera ikastaroaren sari lez eratua.

Batzar-Etxera sartzeko erabilli genduan izkuntza, era bitakoa izan zan: guk, Batzar Etxera sartu aurretik jakin bear genduazn zertzeladak, bertan egoan gizonari, euskeraz egin geuntsozan.

Eta berak guri, beti erderaz erantzun.

Guk, umeai egin geuntsezan oarrak bere, euskeraz egiñak izan ziran: ezeri ez ikutzeko... ezer ez loitzeko... lurrera ezer ez botatzeko etab... Batzar Etxeko arek ostera, erderaz esan eutsezan gauza berok.

\* \* \*

Sartu giñan sartu ba... Batzar-aretora, ume danak eltzen ziran bitartean, arduradunetarik zeinnek, umeai dagokienez, itz-lauz, eta labur angu azalpenak emongo ebazan ari giñan... Alperrik! Batbateko gauzea izan zan: Batzar Etxeko jaun arek (ala jabeak?), berak buruz ekian eten bako, itz-jariozko iturria erderaz jaurti eban, lenengotik azkeneraño.. .

\* \* \*

Gu, itz barik geratu giñan... Arri biurtuta... Lotsatuta... Minduta, gure umeen artean, Bizkai'ko Jaunen erdian...

Bizkai'ko Jaunok, gu inguraturik, geuri goitik beera begiraturik, Gaztela'ko errege-engandik asita, guztiok zirauskuen: «Gu, Bizkai'ko Jaunak gara! Zuek ostera, otseiñak, morroiak! Obeto esanda, morroi-maillara be ez zaree eltzen! Jopuak zaree!».

Olantxe izan zan ba, guk gure Batzar Etxera egin genduan ikertaldia. Buru-makur urten giñan gure umeen atzetik...

MAITENA'k

# BOROBIL ANTZERA

*Zelan dau gaisua?*

*—Il agiñian...*

*Sartu ta jesarri. Or dagoz bestiak.  
Jesarri eurekaz.*

*Luze-luze eginda, begiak itxita  
or dago oyan.*

*Zudurra zorrotzen,  
erre-autsa margua, bere arpegian.  
Neure adizkidia, neure lagun ona  
orain ba zuan...*

\* \*

*Umia nintzala, borobil gorria,  
putz-ontzi barria, igesi yatan.  
Ba-dua zeruan. Gero ta txikiagua  
deritxat! Ai nire tamala!  
Ezin arrapeu, ezin bere ekarri  
eskuetara.  
Baña boronbilla, ez,  
ez zan ituna. Arraña itxasuan  
baizen azke, pozik igoten gora.*

\* \* \*

*Gureztat ituna. Baña azkatu ezker  
zoruna beintzat.  
Buruen barruban, odola-taupakak  
joalen eresia, bigurtu dira.  
Gero ta ariñago, pisurik gabe,  
bere arimia, gora altzaten da.  
Barkamen jantziaz, Jauna'k jantzi dau.  
Jauregiko atiak,  
Gera pasetako zabaldu dira.  
Bere sendikuak, ateraño, agurtzen  
or alkartuta.  
Eguna ezta illuntzen!*

*Alaya ezta amaitzen!*

\* \* \*

*Neure lagun ona, gomuta nigaz.*

UTARSUS

# EUSKERAZALEAK

## BIRAUUA

Antxin-antxiñako aldi baten euskeran ba-zan ala ez zan Jaungoikoa ta zeruetako deunak izaintzeko itz egokirik, iñork ezin baieztu, eta ezeztu be ez. \* \* \*

Txikia nintzanean ba, gure erritxuak erdera gitxi ekienean, «kauen», «nekasuen» eta olakoak entzuten genduzan gu baiño zarrago ta gizonduagoak ziranengandik. \* \*

Zer esaten ebenik be sarritan ez ekien.

Ordu aretatik gaur-egunera nagusitu jaku erderea, txukundu ta osotu be bai.

Lenagoko «kauenak» eta «nekasuenak» aldiaren joan etorrian argiago ta erdera obean esaten ikasi dogu eta bizarbako ume koskorak, ezpanetan errekiña eta itz orreik barik, ez dirudie gizonak diranik be. Antzik artu be ez. \* \* \*

Ez dagigun esan ba, orain arte lez, euskereak ez daukala Jaun eta deunak iraintzeko itz berebizi-zikorik.

«Aktibitate kreatzelariak definizioa errepikaturik eta anunziaturik, eskema magistrala egin zuten». «Adresa eta drestu». «Greba», «bakantza», «anta», «kusina», «bulego» eta eundak geiago, euskerazko itzak ba'dira, eta alan izango, nik uste, erabiliak dira-ta, euskera barrian, «modernoa» diran lekaime, lekaide ta abadeak ezin esan daikee, euskerea biraurik gabeko izkuntza berezia danik.

LANDAJUELA'tar A'k.

## S aski-naski

OTSAILA 1980

75 pezta

Agur .....	1
Euskaldun biotza Akonkagua mendian .....	2
Euskal arteaz .....	7
USA ta URSS alkar-zelatan .....	11
Bidasoa ibaia .....	17
«Stille Nacht» Gabon-Kanta .....	19
Maitasunak jotako neskatxa .....	25
«Orienteering» .....	27
Bei batek bi txekor urte betean .....	31
Naparro zaharraren adiskideak .....	34
Etorrizuneko supermerkaduak .....	37
«Koro»ko ala «Elkoro» Andramari? .....	41
Txistu joka il zan .....	47
Jakin bearrak eta gazteak .....	50
Kanpion'en Errandoko txistularien berpiztea .....	52
Euskal itzak aztertzen .....	55
Aita Santua Irlanda eta USA'n .....	57
Ba ote dakizu...? .....	61
Zurrutaren ondorioak .....	63
Keixeta aizkolaria .....	66
Arraultz-opillaren gertakizun txikiak ...	69
New Haven'en mirari txiki bat .....	71
Zain-gaixoa, gaixo illun baiña arrunta .....	78
Irriño baten kondaira .....	82
Eriotz-egarria .....	95

### IRAKUR ETA ZABAL EZAZU

ALDIZKARI BARRI BAT SORTU DA: SASKI-NASKI/DANA EUSKERAZ ETA ERRIKO EUSKERA EDERREZ/ERDERAZKO «SELECCIONES» ALDIZKARIAREN ANTZEKOA/EUSKAL-GAIK ETA GIZARTE GUZTIKOAK AZTERTZEN DITU/KIOSKOETAN ETA ARPIDEZ SALDUKO DA/IRAKURRI ILLERO ETA ZABALDU.

### IPUIN-SARIKETA

- «Euskerazaleak» taldeak ipuin-sariketea eratzen dau.
- Bizkaieraz idatziak izan bearko dabe.
- Luzeerea: Orri aundi bi, bi-tarte bikoak, geienez.
- Jorraillaren 13'rako Talde onek artu bearko ditu.
- Orrillaren asieran, ille orretako ZER'en agertuko da maikoen ebatzia.
- Sariak iru izango dira: Le-nengoa 25.000, 2.<sup>a</sup> 15.000 milla, 3.<sup>a</sup> 10.000 pezeta.
- Ipuinen gaia, idazleen esku geratzen da.
- Saria lortzen .daben iru ipuiñak ZER'en agertuko dira eta idazlea jabe geratzen da.

**EUSKERAZALEAK**



Colón de Larreategui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

# Bizkaia'k bere Kutxa dauko



CAJA DE AHORROS  
VIZCAINA



BIZKAIKO  
AURREZKI KUTXA

Laguntza aundia